


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-04-13 / 561. ZENBAKIA / 14. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Alonso eta Iturria nazioarte mailako probatan

Mikel Alonso 23 urtez azpiko Espainiako txirrindularien selekzioarekin Flandrian izan da; Mikel Iturriak Trentinoko Giroari ekingo dio datorren igandean / 12

**Tindouffeko kanpalekueetatik Saharako haurrak udan Andoainera ekartzeko deialdia** / 6

**111 Akademia literatur saria jasoko du Basteron Uxue Alberdi idazleak, maiatzean** / 16



## Jokin Lizeaga bizitzari besarkatuta

Urrietako lastekariaren ezbeharra, eta kontakizun latza:

"Bi aldiz hil nintzela sentitu nuen" / 8-10

ANDONI URBISTONDO

**mendi tour**  
Bilbao Mendi Film Festival eko onena

13  
Ostirala  
19:00

**URNIETA**

<b>Song for the Nomad</b> 8'	<b>Safety Third</b> SMFF 2017 Bilboko Film Okena 28' VO - en SUBT - es/ru	<b>The Frozen Road</b> SMFF 2017 Gurekin onena 24' VO - en SUBT - es/ru	<b>Mama</b> SMFF 2017 Espainiako Saria 44' VO - pol SUBT - es

Podcasting=aren inguruko **euskal jardunaldiak**

**Podkoll**

14  
Larunbata

**Lekaio Kultur Etxea**

El Chiringuito podcastero - Reflexiones de un Geek  
Reto Friki & Marvelous - First Person Gamers  
Radio San Junipero - Velocidad Absurda

www.urbistondo.com  
facebook.com/urbistondopodcast  
@urbistondo



# "Ehiza beharrezkoa da"

Igandean, apirilak 15, Euskadiko eta Gipuzkoako Ehiza Federazioek ehizaren aldeko manifestazioa antolatu dute Donostian. Ehiza mundua gehiago ezagutu asmoz, Niko Urrutia Andoaingo Fielato Elkarteko ordezkariak argibide ugari eskaini ditu

## Olatz Lasa ANDOAIN

"Euskadin Ehiza Bai" lemapean ekingo diote manifestazioari, igandean Donostian. 12:00etan abiatuko da Easo plazatik, eta Alderdi Eder parkean amaituko da ibilbidea, Udaletxearen aurrean. Lau aldarrikapen nagusi zabaldu nahi dituzte manifestazioaren bitartez, hala nola, ehiza defentsa soziala, ehiztarietiko errespetua, animalisten presioekin amaitzea eta ehiza jarduera legala eta arautua dela aldarrikatzea. Euskadiko eta Gipuzkoako Ehiza Federazioez gain, Euskadiko Pagauso ehiztarien elkarte, Funcasbiod eta Araba Caza ere batu dira igandeko manifestaziora. ENBAK ere babesa agertu du, baserritarrak manifestaziora agertzeko eskatuz.

1991. urtean egin zen azkeneko maila horretako ehiztarien manifestazioa; kasu hartan, kontrapasaren defentsan.

Estatu espainiarreko 50 hiritan egingo da ehizaren aldeko aldarria Espainiako Ehiza Federazioak antolatuta, Ehizeko Bulego Nazionalaren laguntzarekin. Eurekin egin dute bat Bilbok eta Gasteizek "Ehizaren eta ehiztarien defentsan" lemapean.

Andoaingo Fielato elkarteko zenbait kide Donostiara joatekoak dira igandean. Niko Urrutia ordezkariarekin luze eta zabal hitz egin dugu ehiztarietiko egun bizi duten egoeraz.

## Ehiza, animaliak hiltzea baino gehiago da

Batez ere ehiza larria praktikatzen dute Fielato Elkartean, esaterako, basurdeak eta orkatzak. Animalia horietan kalteak eragiten dituzte nekazal inguruetan, sagastietan, artasoroetan, baserritarren abereengan...



Niko Urrutia Fielato Ehiztari Elkarteko ordezkaria. AIURRI

Niko Urrutia Fielato Elkarteko ordezkariak ondorengo gertakariarekin azaldu du egun ehiztarietiko bizi duten liskarra: "Zure sagastian orkatza sartu, eta datorren urtean sagardoa egiteko sagarra lortuko duzun sagarrondoko adartxo guztiak jaten badizkizu? Niretzat momentu horretan sortzen da liskarra".

Kritika asko ez-jakintasunetik sortzen direla dio Urrutiak, eta honela argudiatzen du: "Ehizean hasi aurretik, baserritarrekin eta artzainekin koordinatu behar izaten dugu, euren abereak bil ditzaten". Ehiza jardunaren atzean jarraitu beharreko –eta jendeak ezagutzen ez duen– protokolo zorrotza dagoela gehitu du. "Baserritarrari etxe ondoan basurdeak kalte eginez gero, hark guri abisatzen digu. Basurdea bertan uzten badugu, hori ere gure kontratador, animaliak sortutako kalteak guk ordaintzen ditugulako", adierazi du Urrutiak ehiztarietiko lan soziala egiten dutela aldarrikatuz. "Ehiztariak existituko ez bagina beste zerbait asmatu beharko litzateke. Baserritarrak eta artzainak bukatu egingo lirateke, beren lurrak eta ganadua ezingo lukeelako mantendu". Gainera, ordainsari handiena baserritarrengandik eta artzainengandik jasotzen dutela esan du, beraiei laguntzeagatik.

Ehiza ez dela animaliak hiltzea bakarrik azpimarratu nahi izan du: "Ehiza garaitik kanpo, urtero basoa garbitzen dugu auzolanean. Egun ezagutzen ditugun mendiak egoera onean badaude baserritarrei eta artzainei esker izan da, horietan ere ehizan ibili baitira".

## Ehiza denboraldia, luzeago urtetik urtera

Azken bi urteetan ehiza denboraldia luzatzea erabaki du Foru Aldundiak. "Duela urte asko urtarrilean bukatzen zen ehiza denboraldia, gero otsailean eta egun martxoraino luzatu da basurdeak sortzen ari diren kalteengatik", azaldu du Fielato Ehiztari Elkarteko ordezkariak.

**"EHIZA GARAITIK KANPO, URTERO BASOA GARBITZEN ARITZEN GARA AUZOLANEAN"**

Ehiza araututako eta kontrolatutako jarduera da, baina tarteka ehiza denboralditik kanpo ehizatzen joan beharra izaten dute ehiztarietiko. "Kanpokoan ikuspegitik animalia babestu nahi da, eta Aldunditik, berriz, ehizara joateko eskatzen digute animaliak kalteak eragiten ari direlako. Zaila da bien arteko oreka aurkitzea", dio Urrutiak ehiza denboraldia luzatzeari buruz. Hala eta guztiz ere, ehiza debekua mantendu behar delakoan da: "Garai honetan basurdeak euren kumeekin dade, eta umeekin dagoen basurdea botatzea guretzako ere kalte da". Ondorioz, ehiza denboralditik kanpoko egunetan ehizatzen joan edo ez zalantzati egoten direla gaineratu du.

## Emakumeak eta gazteak

Gizonezkoen munduari atxikitu zaion jarduna izan da –eta da oraindik– ehiza. Baina pixkanaka gehiago dira ehizean aritzera animatzen diren emakumeak. Horren adibide da martxoaren 8an Andoainen omen-dutako emakumeen artean zeuden bi ehiztari: Izorne Tena eta Miren Dominguez. Gizonezkoen artean babestua sentitzen dela adierazi zuen Tenak martxoaren batean egin zuten agerraldian: "Taldean emakume gehiago egotea nahi dute, eta ehizean aritzen erakusten digute". Dominguezek aitak anaia-rentzat nahi zuen afizioa bereganatu du: "Aitak anaia ehizara eraman nahi zuen, baina hark ez zuen nahi. Nik joan nahi nuela esatean *Benetan?, ba eramango zaitut* erantzun zidan, amore eman baitzuen anaia-rentekin".

Urrutiaren alaba Saioa ere ehiztaria da, 14 urterekin. Ehiza baimena eskuratu berri du, eta aitarekin eta Fielato Elkarteko gainerako kideekin batera joaten da ehizera. Txikitatik erakutsi du ehizarako duen zaletasuna, eta ehiztari familiakoa izanik gertutik ezagutu du ehizaren jarduna. Bere izeba ere ehiztari izandakoa da. Emakume gehiago animatzen ditu Urrutiak ehiza praktikatzera, haren ustez

**"EHIZTARIAK EXISTITUKO EZ BAGINA, BESTE ZERBAIT ASMATU BEHARKO LITZATEKE"**



"emakumeek sen berezia dute ehizerako".

Gazteen artean ehizarako ge-roz eta afizio gutxiago dagoela azaldu du andoaindarrak eta horren arrazoa gizartean zabaldu den ehizaren eta ehiztarien aurkako mezuak direlakoan da: "Eskolan nahiz hedabideetan ez da osotasunean erakusten ehizaren jarduna, animaliak hiltzen ditugula baino ez da erakusten". Herri txikietan baino gehiago hiri handietan galtzen doan afizioa da, halere.

Euskadi osoko 60.000 ehiztari daude deituta igandean. Niko Urrutiak adierazi duenez, "ehiztariok baztertuta gaudela sentitzen dugu, eta ehiztariak asko garela erakustea da gure helburua". Batik bat Aldundiari eta politikoei zuzendutako mezua da igandekoa, eta igandeko manifestazioarekin ehiza jarduna-

rekiko eta ehiztarietarako errespetua eskatu nahi dute. Guzti horretan hedabideek pisu handia hartzen dutela dio Urrutiak, eta sarritan ehiztari zehatz batzuen jarrera orokortzeaz ke-xu da: "Gizarteak oro har aktibitate natural gisa ikusten du ehiza; bestelako kontuak dira gehiegikeriak, hala nola, ehiza denboraldia amaitzean zakurrak abandonatzea". Jarrera hori ezin zaiela ehiztari guztiei leporatu gaitzetsi du. Manifestaziora jende ugari hurbilduko delakoan da andoaindarra.

**Ehizaren aurkako manifestazioa**  
Ehiztarien manifestazioaren aurka agertu da Askeintza kolektiboa. Euren lema honakoa da: "Bizitzeko eskubidea, ez inor hiltzekoa". Igandean egingo dute manifestazioa, 17:00etan Donostiako Bulebarreko kioskoan.



Fielato Ehiztari Elkarteko kideak aurtengo basurde batida batean. NIKO URRUTIA

## Ehiza Euskadin, datu bidez

### Fielato ehiztari elkarteak Andoain

- 45 kide.
- 12.000 euroko aurrekontua.

Andoaingo bi ehiztari kuadrila txikiren uztartekaz sortu zen Fielato ehiztari elkarteak, duela 15 urte inguru. Kudeaketa gastuak eraginkorragoak izateko helburuz batu ziren.

Egun 45 kidek osatzen dute elkarteak, baina urtean zehar 60

lagun inguru aritzen dira ehizean.

Gehiengoak gizonezkoak badira ere, pixkanaka badoaz emakumeak taldera gehitzen, hala nola, Izorne Tena edo Saioa Urrutia. Berriki bi andoaindarrak Martxoak 8, 8 emakume kalejiran omendu zituzten.

Adinari dagokionean, 55 urtetik gorako gizonezkoak dira nagusi. Ondoren, 30-50 urte bitartekoak.

### Euskadiko datuak

Gipuzkoako Ehiza Federazioak, larunbateko manifestazioaren harira zabaldutako bideoan, ehizak Euskadin duen eraginkortasuna azaldu nahi du:

- 60.000 ehiztari.
- 380 ehiza elkarte eta erakunde.
- 50 enpresa.
- 1.850 lanpostu.
- 180.000.000 euroko eragin ekonomikoa.



Basurde batida baten osteko argazkia, Fielato Ehiztari Elkarteak. NIKO URRUTIA

# Liburu aurkezpena

## Patziku PERURENA

2018-04-17, asteartearekin

LEITZAKo Udaletxea

Batzarre Aretoa

19:00











## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

## Garaipena

Garaipenik handiena ez ote den bizirik ateratzea, onik etxera itzultzea,... Jokin Lizeaga mendi lasterkariaren kasuan ez da ezbeharraren ostean adieraz daitekeen topikoa. Bene-benetakoa da. Jokin, apirilaren 8az geroztik, berak desio duen tokian dago: etxekoan ondoan. Ainhua Jauregi bikotearekin batera, hiru seme-alaben zaintza kirol mailako lorpenen gainetik jartzeko hautua aspaldi egin zuelako. Pena hartu du, kolpe latza jasota gainera, baina egunerokoan gainerakooi erakusten digun balio eskalan Zegama-Aizkorrin parte hartzeko ezintasuna txikikeria da. Bizitza da handiena; Lide, Negu eta Intza hazten ikustea inoiz lor dezakeen kirol garaipen handienaren gainetik dago.

Diodan guztia ezin hobekiago adierazi zuen protagonistak berak Trail de las pastoras de Portudera lasterketaren bezperan. Apirilaren 7ko bideoa ikusgai dago internet sarean, antolatzaileek mikrofonoa eman eta hauxe adierazi zien Jokin Lizeagak une horietan entzule zituen lasterkari eta zaletuei: "Egia esan, hemen egoteko aukera izatea gozamen hutsa da. Hemen dagoen gehiengoa zeinen ondo dagoen ez da konturatu ere egiten. Lehenengo edizioan parte hartzeko aukera izan nuen, eta hurrengo hiruretan ikusle modura etorri naiz lesioekin izorratu samar ibili naizelako. Beraz, dortsala jartze hutsa bizitzari eskerrak emateko modukoa da. Gozaten ahaleginduko naiz, jakin badakit ibilbidea oso gogorra, oso ederra dela. Lehen jaitsierak gogoko nituen baina orkatilak txikituta ditudanetik jada ez ditut hain gogoko. Egia esan, ez nago sasoi txarrean. Helburua bazkaltzera garaiz iritsi eta arratsaldean hurrekin

## IKUSITAKOAK IKUSITA, IGANDEKOA SEKULAKO GARAIPENA IZAN ZEN JOKIN LIZEAGARENTZAT

parkean jolastea da. Hori lortuta, pozik egongo naiz. Egoera txarrean helmugaratzen banaiz, bazkaldu gabe eta haurrak zaintzeko aukerarik gabe iristen banaiz, orduan, bai, biharkoa egun txarra izango da". Onartuko didazue, ezbeharrak eta gero, adierazpenok irakurtzeak

zirrara berezia eragiten dutela. Kontraesankorra badirudi ere, apirilaren 8an Lizeagak garaipen handia erdietsi zuen. Osatzen denean, etxekoekin eta mendiaz gozatzeko aukera berria izango duelako. Hain telematikoa den garaiotan, elkar ikusi gabe komunikatzeko gai gara. Zuek ez dakit, baina neronek kalean ikusi eta txalo egiteko tentazioari ez diot uko egingo. Ikusitakoak ikusita, igandekoa sekulako garaipena izan baita.

## POSTONTZIA

## Bankua

## ANE AMONDARAIN

Batek baino gehiagok, pentsatuko du idatziaren izenburuari begira jarritz, euroez edo diruaz arituko naizela, edo pil-pilean dagoen pentsio duinei buruz arituko naizela.

Ez da hori, kasu honetan gauza sinplegoa da, erraza eta beharrezkoa: "Banku bat" soilik. Gaiak duintasunarekin zerikusia du, herrikideon bizitza kalitatea hobetzearekin.

Andoaingo Udalak auzoz auzo antolatuz izan dituen bileretan egondakoa naiz eta zehazki Zumea-Belabiko auzotarrei zuzendutako bilera egin zenean, udal agintariei errekadua luzatu nien, Zumeako bi aiton-amonek eskutatuko errekadu edo enkargua.



Enkargua Zumeako bi lorek egindakoa izan zen, bi aiton amonek alegia.

Egunero pasiatzera baldintza duinetan ateratzeko banku bat, eserleku baten eskaera egiteko eskatu zidaten, zehazki Belabi kalean, Zumeatarra elkartearen parean dagoen espaloian jartzeko.

Betiko moduan pasiatzera atera gara eta geldialdia egiteko premian gaude, ez

dago bankurik eta gaurkoan etxetik jaitsitako aulki tolesgarriari esker hartu dugu deskantsua. Opor garai honetan eguzki izpiak beharrezkoak ditugu, gure aurpegiko larruazala belztu eta behar dugun energia eskuratzeko, baina ez da duina aulkia eskutan dugula ibiltzea. Horixe diote aiton-amonek. Hauxe idatzi, eta Aiurrira idatzitxoa bidaliko niela agindu nien. Joan zen apirilaren 4an, duintasun handiz amona Petrak agurtu gintuen. Ez du dagoeneko pasiatzeko premiarik izango, deskantsua betiko hartu baitu. Orain Zumeako lore bakarra daukagu, baina ziur nago bizitza kalitatea hobetzeko edonorentzat ere beharrezkoa izango dela, "banku bat" soilik izan arren.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
 ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:  
 EUSKO JAIURLARITZA GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia  
 ZIURTAGIRIA: Bitkarn  
 BABESLEAK: BABESLEAK  
 Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

## PROTAGONISTA

# “Konpondu gabeko traumek arrastoa uzten dute”

MARTA DELGADO KONSTELAZIO FAMILIARRETAN BITARTEKARIA

## Erredakzioa ANDOAIN

Konstelazio familiarak Bert Hellinger psikoanalista alemaniarrak sortutako metodo terapeutikoa da. Terapia hori lantzen dutenen arabera, konpondu gabeko esperientzia traumatikoen arrastoa uzten dute, ez bakarrik gertatu den belaunaldian, baizik eta ondorengoetan ere. Iraganeko arrasto horiek gaur egungo errealitatea eraldatzen dute. Pertsona bizi da bere orainaldian, egoera zaila maiz errepikatuko balitz bezala, eta ez da jabetzen bera dela egoera errepikatzen laguntzen duena. Jardunaldiak antolatuta dituzte, Andoainen.

**Afitxatan ikusi izan dugu adiera ez hain ezagun hori: Konstelazio familiarak.**

Konstelazio familiarak ezagutarazteko bi jardunaldi egingo ditugu asteburuan. **Ikastaro modukoa dela esan daiteke?**

Bai. Larunbatean “Bizi eta elkarrekin bizi. Gatazkak



Marta Delgado, Arteta kalean duen egoitzaren atarian. AIURRI

kudeatzeko baliabideak” izeneko ikastaroa burutuko dugu. Arlo ezberdinetako profesionali bideratutako prestakuntza da, norberaren gatazkak eta besteenak ezagutu eta identifikatze

aldera. Lehen jardunaldi horretan prestakuntza programa teoriko-praktikoa garatuko da, eta horretarako konstelazio familiar berrien filosofia eta metodologia hartuko dira kontuan.

## Zertarako, zehazki?

Norberaren gatazkak eta besteenak identifikatzeko, eta kudeatzeko gaitasuna garatzeko. 2017ko urrian abian jarri ginenetik, gatazkak identifikatzea eta horietan esku hartzea lantzen ari gara. Landu ditugun hainbat gai emozioekin eta bizipen traumatikoekin dute zerikusia; bestek beste, gurasoen eta seme alaben arteko harremanak, erresistentziak, loturak, bikotea eta lan munduko giroa.

**Igandeko saioan kasuan kasuko egoerak aztertu nahi dituzue.**

Konstelazio familiarren tailer irekia izango da, egoera zailen bat konpontzeko premia daukaten pertsonen bideratuta.

Hots, arazoak gizarte eta laneko harremanetan, maitasunean, familian, osasunean...

Tailerra 10:00etatik 14:00etara egingo da, Arteta kalea 1 atzealdean kokatzen den egoitzan (667 931 201).

Bulegoan bertan honako zerbitzuak eskaintzen ditut: aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua, gatazken kudeaketan laguntza, prestakuntza tailerak eta konstelazio familiarak.

## HAU ERE BADUGU!

## Hurria-Sahara taldearen ekimena



Aiurriko webgunean eta sare sozialetan martxoaren amaierako bertso saioaren kronika eta bideo-sorta eskuragarri daude. Irismen handia izaten ari da, alde ezberdinetatik. Batetik, Saharako herriarekin bat egiten duten hainbat elkarten aldetik. Eta, bestetik, bertsozaleen aldetik.

Hurria-Sahara elkarteak, datozen egunotan, Tindouffeko kanpalekuek hona hainbat gaztetxo uda igarotzera ekartzeko zereginari helduko dio. Andoaingo Udalarekin lankidetzan, udako oporraldia bertan igarotzeko familia bila ari dira.

## Euri kontuak eskualde osoan



Euskal Meteorologia agentziek asteazkenerako eta ostegunerako egin zituen aurreikuspenak tarteko, Andoaingo Udalak emergentzietarako protokoloa martxan jartzea erabaki zuen. Ezustekoak sailheste aldera, herritarrek tentuz jokatzeko deia luzatu zuten. Eta, horrelakoetan ohikoa denez, Goikoplaza eta Etxeberrietako plaza aparkaleku gisa erabili ahal izan ziren.

@MeteoAndoain erabiltzaileak gogora ekarri zuenez, "prezipitazioak egunero ematen ari dira, apirilaren 6az geroztik".

## ITURRI ONETIK

## Euskaraldia

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte euskararen erabilera areagotzeko Euskaraldia egitasmoa abian jarriko da, Euskal Herri osoan. Herri eragileak eta erakundeak elkar hartuta, xede nagusia euskararen erabilera areagotzea da. Euskalduna eta euskalduna izateko bidean, guztiak beharrezko izango dira. Aste Santuaren atarian, Andoaingo Udalak gai honi buruzko lehen bilkura deitu zuen. Aste honetan Urnietako Udalak hainbat eragile deitu ditu. Udalek izena emateko garaia da, irailean herritarren txanda izango da.

## GORA ETA BEHERA



## Hainbat zakur-jaberen ardura falta nabarmena

Kale Nagusiko irudia da, merkatalgune baten atarian ateratakoa. Udala egun hauetan sentsibilizazio kanpaina berezia egiten ari da, herri osoan zehar. Jabe eredugarrien bila, horixe du helburu kanpaina instituzionalak. Argi baitago, irudian ikus daitekeenez, hainbat zakur-jaberen ardura falta nabarmena dela. Azkenean, isunak areagotzea beste aukerarik ez dute izango.







Udan Sahara aldeko haurrak herrian zehar ikustea ohikoa da.

## Tindouffeko haurrak udan Andoainera ekartzeko deialdia

Andoaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuen lantsailak apirilaren 23ra bitarte zabaldu du deialdia

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak, beste urte batez, Hurria-Sahara elkartearen lankidetzarekin batera martxan jarri du *Oporrak Bakean* elkartasun programa. Ekimen honen helburua gazte sahararrak bizi dituzten baldintza zailetatik atera, eta udan opor duin batzuk igarotzea da. Udalak deialdi berezia egin die Andoaingo familiei, "zure familiak esperientzia aberasgarri honetan parte hartzeko prestutasuna adierazi nahi badu, jakin ezazu haur guztien bidaia kostua Udalak bere gain hartzen duela. Gainera, hona datozen haur guztiek mediku aseguruia eta hortz aseguruia ere izango dute. Hori guztiaz gain, Udalak Uda programaren laguntzarekin, goiz guztietan zehar herriko kiroldegian haurrentzako ekintza ezberdinak ere antolatuko ditu. Ekintza horietan dohainik parte hartzeko aukera izango dute".

### Udako oporraldia 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat

Andoainera iritsiko diren gazte txoak Tindouffeko errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren 8 eta 12 urte bitarteko haurrak dira. Han udan 50 Cko tenperaturak jasan behar izaten dituzte, tenperatura altu horiekin kalera ateratzeko zailtasun handiekin. Beste aukera bat eskaini nahi zaie haurrei: "Haurrei herriko inguruak, hondartzak eta herriko beste gaztetxoekin jolasteko aukera eman nahi diegu".

### Informazio osoa Udaleko Gizarte Zerbitzuen lantsailean

*Oporrak Bakean* elkartasun programari buruzko informazio osoa Andoaingo Gizarte Zerbitzuetan eskuragarri dago. 943 304 343 telefono zenbakira deituta ere, argibide guztiak eskaintzeko prest daude. Izen ematea apirilaren 23a baino lehen egin behar da.

# Oroimen historikoarekin hitzordua Alfaro parkean

'Oroituz, Andoainen' herri ekimenak Frankismo garaiko biktimak gogoan hartuko ditu, eguerdiko 12:00etan deitu duen ekitaldian. Aurtengo gonbidatu berezia 'Martxoak 3' Gasteizko ekimena izango da

### Erredakzioa ANDOAIN

Gasteizko 1976ko gertakizun lazgarriek protagonismo berezia hartuko dute aurten frankismoak Andoainen eragin zituen zapalduen eskainiko zaien omenaldi ekitaldian. Poliziak eraildako bost langileak gogoan izango dituzte, eta horretarako, ekitaldian zehar gertaera haien harira justizia eskatzen ari den Martxoak 3 elkarteko kideek hartuko dute hitza.

### "Campanades a morts", Banda Errepublikanoaren eskutik

Bestalde, Musika Banda Errepublikanoak, borroka eta erresistentzia kutsuko kantez osatutako emanaldia eskainiko du, besteak beste, "Campanades a morts" abestia interpretatuz. Lluís Llach abeslariak Gasteizko gertakizunekin hunkituta osatu zuen abesti ospetsu hori. Llach abesti horrez gain, ekitaldira bertaratzen direnek beste hainbat abesti entzun ahal



Musika Banda Errepublikanoa, artxiboko irudian. AIURRI

izango dituzte. Besteak beste, "A las barricadas", "Ekaitza", "Justizia denontzat" eta "Hijos del pueblo". Ohi bezala, ekitaldia Etxeberrietako Alfaro parkean egingo dute, larunbatarekin, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

**ADIERAZPENAK ETA MUSIKA ETA DANTZA SAIOAK IRAGARRI DITU 'OROITUZ ANDOAINEN' TALDEAK**



AIURRI

## Oporraldiaren ostean Goikoplazara berriro

Aste Santuko oporraldia igarota, Andoaingo pentsiodunen protestarako gogoia ez da apaldu. Apirilaren 9an ere dozenaka izan ziren Goikoplazara eguerdiko hamabietan hurbildu ziren adinekoak. Espainiako Gobernuak hainbat hobekuntza iragarri

ditu, 2018ko Aurrekontu Orokorrean lotu nahi dituenak. Pentsiodunen elkarretako bozeramaile ezberdinek hutsaltzat hartu dituzte Gobernuaren proposamen horiek, eta igoera duinak lortu arte protesta egiten jarraituko dutela iragarri dute.





# EuskalPod jardunaldia, larunbat honetan

EuskaDigital, EuskoNet eta Udalak sustatuta, jardunaldi irekiak izango dira egun osoan zehar Lekaio kultur etxean. Doakoa eta irekia da interesa izan dezakeen ororentzat. Adituen topagune izan nahi du, erabiltzaile berrien erakusleho

## Erredakzioa URNIETA

Gailu teknologikoei loturiko fenomeno berri gehienekin bezala, podcast delakoa ingeleseko adiera da. Wikipedian azkar batean topa daiteke definizioa: "Mugikor eta ordenagailuetan erreproduzitzeko banatzen den multimedia fitxategia" da. Zaletasunak partekatze eta jakinduria zabaltzeko baliagarria, nahieran kontsumitu daiteke. Antolatzaileek igorri duten oharraren arabera, adituen eta zaletuen arteko bilkura izatea nahiko lukete: "Podcast sortzaileen eta zaletuen arteko topagune bat izateko eta lagun berriak egiteko balioko du. Baita podcasta nola egin diren ikasteko ere. Grabazioak egingo baitira zuzenean, euskaraz nahiz gaztelaniaz".

## Egun osoan Lekaion

**10:00** Harrera.

**10:30** *El chiringuito podcastero* (zinema, bideojokoak...).

**11:30** *A la Velocidad Absurda* (serieak, musika, filmak...).

**13:00** *Radio San Junipero* (teknologia berriak).

**14:00** Bazkaria.

**16:00** *Reflexiones de un Geek*.

**17:00** *First person gamers* (bideo jokoak).

**19:00** *Reto Friki & Marvelous* (liburuak, komikiak).



Bideo jokoetan aditu eta aritu diren *First person gamers* taldeko kideak.



## Zuzeneko saioa

ELIAS GOMEZ WORDPRESS GARATZAILEA

Datorren apirilaren 14an lehen EuskalPod jardunaldia egingo dute Urnietan, Euskadiko podcastingari loturikoa. Helburua podcastingia eta bere kontsumoa sustatzea da, egile eta zaletuen arteko bilkura izateko asmoz. Podcaster modura parte hartzea gonbidatu naute, eta zuzeneko emanaldia egiteko ohorea izango dut. 'Bilboko Geek (Internetekin zoratuta dagoena, ahal duen denbora guztia sarean murgilduta ematen duena) baten hausnarketak' izenburupean, teknologia horri zukua ateratzeko aholku errazak eskainiko ditut. Ikusle guztiei zuzenduta izango da, eta baita oso maila oinarrizkoa duenarentzat ere. Beraz, edozeinek entzun ahal izango du. Arratsaldeko 16:00tan hasiko da nire tartea.

## Aisialdia Aste Santuan

Tailerrak, irteerak..., Urnietako Gaztelekuak Aste Santuko oporraldiko aisialdia osatzeko egitarau zabala antolatu zuen. Oporraldia igarota, Beñat Alonso eta Garazi Jauregi Gaztelekuo arduradunek balorazio positiboa egin dute: "Ekintza desberdinez gozatzeko aukera izan dugu eta oporraldia giro atseginean igaro dugu". Argazki gehiago: Aiurri.eus.



URNIETAKO UDALA



Ekainaren 10eko giza-katerako 250 herrikide beharko dira. AIURRI

## Gure Esku Dago taldeak karpa ipiniko du Zaldundegiko plazan

Ostiral honetan arratsaldeko 18:00etatik aurrera, "Eman eskua etorkizunari" kanpainaren baitan

## Erredakzioa URNIETA

Erabakitze eskubidearen alde bidea egiten jarraitzeko giza-katea antolatu du Gure Esku Dago, ekainaren 10erako. Helburua Donostia, Bilbo eta Gasteiz elkar batzea da 201,9 kilometro eta 100.000 pertsona inguru izango dituen giza-katea sortuz. Urnietarrek 0,5 kilometro bete beharko dute Aginagan (Usurbil), eta eremu hori osatzeko 250 urnietar beharko dituzte.

## Ostiralean hitzordua Urnietan

Urnietako Gure Esku Dago hasi da lanean pertsona kopuru horretara iristeko beharrezkoa den parte-hartzea lortzeko, eta baita, herria egun berezi horren atarian girotzeko ere. Hala, hainbat bilera egin ostean, ostiral honetan, apirilaren 13an egingo du lehen agerraldi publikoa arratsaldeko 18:00etatik aurrera,

Zaldundegi jatetxearen ondoan dagoen plazan jarriko den karpan. Karpa 21:00ak inguru arte egongo da zabalik. Karpan bi mahai ipiniko dira. Lehenengoan 16 urtetik gorako herritarrek ondo emateko aukera izango dute, 5 euroren truke. Izenpea Gure Esku mugimenduari atxikimendua adierazteko eta erabakitze eskubidearen aldeko jarrera erakusteko modua da. Izenpea gauzatzen duen pertsona bakoitzari zapi bat emango zaio, eta zapi hori izango da, hain zuzen, ekainaren 10eko giza-katean erabiliko dena.

Beste mahaian ostera, kamisetak izango dira salgai, bai helduentzat eta baita umeentzat ere. Kamiseta bakoitzak 10 euro balioko ditu. Eguna girotzeko, Txanbolin txistulari bandak kalejira egingo du, San Juan plazatik abiatuta Zaldundegiko plazara iritsi arte.

## Webguneak sortzeko tailerra Gazte informazio puntuan

Lappa taldearekin musika tailerra antolatu ostean, informatikari loturikoa ostiral honetan

## Erredakzioa URNIETA

Gazteen zaletasunei bidea eman nahi diote Gazte informazio puntuan, eta horretarako jardunaldi ezberdinak antolatu dituzte. Ostiral honetan webguneak sortzeko tailerra eskainiko dute, Kode Eskolako eskutik. Parte-

hartzaile bakoitzak bere ordenagailu eramangarria eraman beharko du. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da, informazio puntuan bertan.

Apirilaren 20an komikiari helduko diote, Judas Arrieta komikigilearen eskutik.

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Nola egongo zinateke, hiru egun atzera bizitzan agian berriz eza-gutuko ez duzun egoera lazgarria bizi izan bazenu? Urduri, agian. Edo poz handirik gabe. Edo buruari bueltak ematen. Edo airean, oinak lurrean finkatu ezinik. Jokin Lizeaga irrifartsu agertu da Etxeberri plazara, Ainhoa bikotea alboan duela, errenka, baina oinez erritmo bizian. Osasun zentroan Pastoras de Portudera lasterketan egin zituen zauriak sendatu behar dizkiote, egunero. Iltzatuta du erorketa larria izan eta hiltzeko arrisku bizian egon zela. "Bi aldiz hil nintzen", dio, dardararik egin gabe. Pasadizo gordin hark, 10 eta 20 metro arteko zulo ilun eta hezean pasatako hiru ordu luze eta latz haiek minik ematen ez duten oinazea ekarriko diotela jakitun da, baina hori ere bizi ahal izango duelako pozik da. Osatze prozesu luzea du aurretik, baina garbi du mendian korrika jarraituko duela. Hori bai, punta-puntako lasterketan "lasaiago aritzeko" intentzioarekin.

**Zer moduz zaude?**

Oso ondo (barrez). Sustoa galanta. Haustura daukat sorbaldan, saihets bat apurtua, eta bihurritu arina orkatilan. Astelehenean ez nuen lurrean jartzen, gaur bai. Poliklinikan egon naiz, sorbaldan ebakuntza egin behar didatela esan didate, edema txikitzen denean.

**Luzerako, beraz, osatzen.**

Bai, ez didate zehaztasun askorik eman, baina 6-8 hilabete izango dira, bai, ebakuntzarekin. Ez nau asko kezkatzen, une honetan. Pasatakoak pasata, ezer ez.

**Psikologikoki, zer moduz?**

Ustez, ondo. Gau txarrak pasa ditut.

**Amesgaiztorik bai? Istripua gertatu zeneko mapa osatu duzu, oroitzen zara? Gogorra egiten ari zaizu?**

Ez naiz sufritzen ari, horregatik, baina erorketako 5-10 segundoe-kin oroitzen naiz, jausten hasi eta behera eta behera egin nuen une horrekin, geratu ezinik. Gaez-eta oroitzapen gogor samarrak egiten dira.

**Asko hitz egin duzu erorketaz?**

Bai, bai, arazorik ez. Are gehiago, hortaz hitz egiteko behar pixka bat ere eduki dut.

**Xehetasunak emateko moduan?**

Jausi baino lehenago ere gerri-raino sartu nintzen elurretan, eta jausi baino lehenxego bula-



Jokin Lizeaga eta Ainhoa Jauregi astearte goizean, Urnietako kafetegi batean. **ANDONI URBISTONDO**

# "Bost solairuko etxe batetik jausi eta kontatzen ari naiz. Pentsa..."

Ezbehar larria gertatu eta bi egunera Jokin Lizeaga irrifartsu agertu da Urnietako Etxeberri plazara, Aiurriekin zuen hitzordura. Ainhoa bikotea alboan duela, errenka, baina oinez erritmo bizian agertu da. Kontakizun latza eskaini du, zirraragarria

rreraino. Gogoan dut eskuak zabaldu nituela, gehiago ez hondoratzeko. Hurrengo pausoa, tobogan batean sartzea bezala izan zen. Itsasoarekin lotu nuen jausia. Zitzu bizian beherantz nindoan, eta itsasora iritsi arte ez nintzela geldituko pentsatu nuen. Luze egin zitzaidan. Bost segundo horietan hil egin nintzela pentsatu nuen. Gero lurra ukitu nuen, konortea galdu gabe. Hor beste fase bat hasi zen. 'Bizirik nago, ondo!', pentsatu nuen. Berehala, sorbalda zintzilik neu-

kala jabetu nintzen. Zulotik ateratzeko aukeraren bat neukala sumatu nuen, aukera txikia. Jausi nintzen zuloa urruti ikusten nuen, eta ura erortzen zen, baina banekien beste korrikariak handik pasako zirela. Oihu egiteko gai nintzen, eta horretara bideratu nuen nire bizi itxaropena. 7-8 minutuko aldea ateratzen nion bigarren sailkatuari, eta lehen tarte horretan lasaitu egin nintzen. Banekien jan egin behar nuela, indarrak gorde, eta nire bizi iraupena denbora ges-

tio horren eta norbaitek nire oiha entzutearen baitan zedula. Gel bat jan nuen, xira jantzi, eta *socorro* oiha egiten hasi nintzen. Ezer gutxi entzuten zen, ur jauziak soinu asko ateratzen zuelako, eta herio hartan, dardarka, zuloan gora eskalatzeko hasi nintzen beso bakarrekin. Presaka, iluntasunean. Zuloa ikusten nuen, txikia zen. Oso-oso urruti. Zuloa bertikala zen, eta metro pasatxoko diametrokoa edo. Goraino iristea ezinezkotzat ikusten nuen, baina pausoz pau-

so espero baino gorago iritsi nintzen, eta horrek hauspoa eman zidan. Bi hankak 30 zentimetroko irtengune batean jarri ahal izan nituen, eta handik gora ezinezkoa zela onartu nuen: gorputzari buelta eman behar nion, paretaren bestaldera joan... Gora ezin, eta berriro beherantz jausiko nintzela pentsatu nuen. Han geratu nintzen, zutik, esku batekin paretari eutsiz. Manta termikoa jarri nuen, eta hura hartzen ari nintzela txilibitua erori zitzaidan. Egia esan gogoratu ere ez nintzen egiten, eman zigutenik.

**Eta han, geldirik, zain.**

Bai, ehiztari baten pare, zelatan, ea norbait hurbiltzen sumatzen nuen. Bitartean, ura etenik gabe burutik behera. Hotz handia sentitzen hasi nintzen, gorputza ere fisikoki zigortu egin nuelako -24. kilometroan izan zen istripua-. Banekien gorputza pixkanaka tenperatura galtzen joango zela, eta prozesu horretan, ia oharkabean, kontzientzia galduko nuela, handik ateratzen ez banintzen. Bi barratxo jan nituen, eta pausoak entzun asmoz zentratu nintzen. Halako batean pauso batzuk entzun nituen, kristoren orroak egin eta korrikariak buelta eman zuen. Nor nintzen esan nion, nora joan behar zuen laguntza eske, baina gero esan jabetu nintzen anoapuntu horretara joan eta etorri, agian hainbeste denbora ez nuela iraungo. Hurrengoaren zain, berriro. Gelditu egin zen, eta nirekin geratzeko eskatu nion. Taldetxo bat heldu zen berehala, eta han zeuden Javi Dominguez eta Sergio Aramendia, ezagunak biak. Ahotsagatik ezagutu nituen. **Lasterkariak geratu izanak libratu zaitu heriotzatik.**

Bai, bai. Ziur hilko nintzela pentsatetik, aukeraren bat banuela pentsatzera pasa nintzen, aurkitu nindutelako. Helikopteroari deitu ziotela esan zidaten, baino kontaktua ez zen etengabea. Indarra gorde nahi nuen, gorputzaren tenperatura mantentzeko, eta asko hitz egiten banuen, kontrakoa gerta zitekeen. Nire arnasa manta barnean botatzea erabaki nuen, beroa zegoelakoan, eta ertz horretan irauin beste asmorik ez nion jarri nire buruari.

**Uneren batean lokartu edota konortea galtzeaz egon zinen?**

Ez. Ondo eutsi nion. Nekatuta, oso. Muga-mugan, uneren batean



oinak ere dardarka hasi baitzitzazkidan. Helikopteroa bazetorren horretan, antsietate pixka bat sentitu nuen, eta mareatu egin nintzen. Presaren itolarri hori sentitzen hasi nintzen gordin-gordin, eta mareatzeko zorian nengoela, suhiltzailea niregana iritsi zen. Nire lehen hitzak, "mareatzen ari naiz". Aseguratzeko arnesa jarri zidaten, baina luze joan zen. Hiru ordu pasa ziren, jausi nintzenetik, atera ninduten arte. Kontziente nengoen, behin zuloatik kanpora aterata, baina dardarka, konbulsioen antzeko erreakzioarekin. Uste dut gorputzaren lehen erreakzioa dela, gorputza bera hotzetik babesteko. Tenperatura hartu zidaten eta 32.4 gradura nengoen helikopteroan (37 da ohikoa). Erietxera iritsitakoan 34. Helikopteroan luxazioa gutxitzen saiatu ziren, alferrik, eta erietxean, anestesiarekin lortu zuten. Gaua pasa nuen Arriondasen, eta sentsazioa garaipen handia lortu izanarena da, bizirik nagoelako. Gogoan dut suhiltzaileak esan zidala, nire erorketa bost solairuko etxe batetik erori izan banintz bezalakoa zela, ba pentsa...

**Zer pentsatzen du pertsonak heriotza hain gertu sumatzen duenean?** Bikotearrekin paperak egin gabe nituela eta marroi latza utzi behar niola, hiru seme-alaba bere kargura. Inor agurtu gabe, bai despedida tristea, ezta? Banekien noizbait bilatuko nindutela, gorputza ez zela desegingo, baina...

**Oihartzun mediatico handia izan du zure istripuak: kronikak, bideoak, irratik elkarrizketak... zerbait ikusi, entzun duzu?**

Ez, oraindik ez. [Ainhoa bikoteak hartu du hitza]. Irratiko grabazioa entzuteko prest dagoela esango nuke, baina ez du tarterik hartu. **Horrelako egoerak mentalki gaiztoak izaten omen dira, denbora pasa ostean. Arduratuta, horregatik?**

Etorriko da, noski. Zorionsua naiz bizitzak bigarren aukera eman didalako. Whatsapp mezu guzti-guztiak erantzun nituen, milatik gora ziur. Ondo sentitu nintzen nire barruko zama hori ateratzeko. Hitz egin ez, erietxean bertan negar dezente egin nuelako, baina whatsapp-eta eman eta eman aritu nintzen, eskerrak emanez galdetu zuen guztiari. Azalpenak emateko behar hori sentitu izan dut beste batzuetan, amaren heriotzarekin, adibidez.



Ainhoa Jauregi bikotekide Jokin Lizeagari begira. ANDONI URBISTONDO

Berria azkar zabaltzen saiatu nintzen, eta orain ere antzera egin dut, lagungarria izan zait. **Maitasun eta laguntasun mezu asko eta asko jaso dituzu. Ze hausnarke- ta eragiten dizu horrek?**

Benoa, jende askok maite nauela, ez? Horrelako balentria batek pertsona gaiztoena ere maitagarri egiten du, ezta? Trail munduan ez daukat ezinikus, edo haserre gaiztorik. Badakit zergatik korritzen dudana, ez daukat handinahirik, gozatzea baizik. Asturiasko lasterketako aurkezpenean ere esan nuen, nire helburua onik helmugaratu eta bazkari legea egitea zela esan nuen, arratsaldean umeekin parkean lasai egoteko. Egunerokoan ere giza-seme baketsua naiz, zubi lanak egindakoa iskanbilak daudenean. Lagun asko edukitzen lagundu dit horrek. Konformista naiz. Ez naiz fama edo garaipen zalea, daukatenarekin konformatzen naiz, eta kito.

[Ainhoa Jauregi] Topiko bat da Jokin esaten ari dena, baina gauza ezberdin bi dira esatea eta egitea. Eta Jokinek, esateaz gain, esaten dituenak egiten dituela uste dut.

**Esperientzia bakan honetatik irakaspenen bat atera al duzu?**

Ez dut denborarik eduki. Zer edo zer etorri zait... Dorsala janzen jarraituko dut, baina agian beste modu batean, errendimendua hobetzeko helbururik gabe. Zorigaitz dezente izan ditut, azkeneo hau grabe samarra, eta agian seinaleak dira.

**Haurrak eta jabetu al dira?**

Bai, Lide batez ere. 7 urte ditu, eta dagoeneko gauzeekin jabetzen hasia da. Konturatu da aitari betiko lesio bat ez den zerbait pasa zaiola, zeren eta etxera la-

gunak etorri dira, alaba bera adi entzuten...

[Ainhoa Jauregi] Arriondasko erietxetik Cabrales-era bueltan ginela, Jokin erietxean utzita, ostatuan negarrez sumatu nuen Lide, dardarka, eta galdetu zidan ea aita jausi zen zulo hori zergatik ez zegoen elurrez betea, zulo bat baldin bazen. Entzun zuen zerbait, zulo bat, Jokin erori zela, eta bere istorio propioa sortu du.

**Zer moduz zu, Ainhoa? Bikoteari muturreko batzuk emateko gogo sartu zaizu edo ez?**

Ez. Ez dakit patua edo zer demontre den, baina baten bat, zer edo zer, atzetik kolpean ematen ari zaio Jokini. Bere esku dagoena oso ondo egiten ari da, baina bere esku ez dagoena ba oker samar joan da! Patua, zorte txarra..., bizitzak hor jartzen gaitu agian halako egoerak gobernatu eta heroiak edo indartsuak garelako erakusteko, baina nik, dagoeneko, ez dut indartsu sentitu nahi. Nik lasaitasuna nahi dut, behingoz. Kolpea etorriko zaidala badakit, eta esan diot Jokini, etortzen denean, espero dudala berak ni bera zaintzen ari naizen modu berean zaintzea, alegia, goxo-goxo.

**Jokin, bikoteak esango zizun, dagoeneko, lasterketen kontu hori aparte uzteko, ezta?**

[Ainhoa Jauregi] Ez diot mehatxurik egin... Dagoeneko, hiru umerekin hara eta hona ibiltzea pentsatu beharko lukeela... B mailako probak gertuago daude...

Inoiz ez dizkiot hegoak moztuko nire bikoteari, gehien gustatzen zaiona lasterketak korritzea baita..., baina bere pasioa asetzeko moduak daude.

## Oihartzun handia izan duen albistea



Ana Azpilicuetak bere twitter kontutik zabaldu zuen irudia. @ANA\_AZPI

**Zaletuak** Euskal Herri osoan bezalaxe, gertaerak estatu mailan ere oihartzun handia izan zuen. Sarean arakatuta, askotxo dira zabalduak mezuak. Horien artean, laSexta TV katean infogramak egiten dabilen Madrilgo Ana Azpilicuetaren komiki polita.

**MARCA**

AVENTURA - EL RECONOCIDO CORREDOR EN CARRERAS DE MONTAÑA CAYÓ EN UNA SIMA DE 20 METROS  
**Jokin Lizeaga salva milagrosamente la vida tras una caída en una maratón en Asturias**



Marca, gehien saltzen den kirol egunkariak, gertaeraren berri eman zuen.

**Hedabideak** Andoni Urbistondo edota Miguel Angel Garrosa kazetariak zabaldu zuten albistea. Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia irratsaioa izan zen bere adierazpenak bildu zituen lehen hedabidea, erreskatea gauzatu eta minutu gutxira.



Reventon Trail @reventontrail · 18 ordu  
Durante #ReventonTrail nos enteramos del accidente de Jokin Lizeaga. 🙄  
Le mandamos un abrazo muy fuerte, todo nuestro ánimo y una pronta recuperación.



Kanariar uharteetako La Palman antolatzen dute Reventon trail delakoa.

**Antzolatzaileak** Kanariar uharteak, Huesca edota Kantabriako mendi lasterketen antolatzaileak, eta estatu osoko korrikalariak Facebook, Twitter eta Instagram bidez animozko mezuak zabaldu zituzten. Baita kirol marka ezberdinetako ordezkariak ere.



# Animoz beteriko mezuak Jokini

Animoak ez zaizkie faltako Jokin Lizeagari eta etxekoei, ez beharra gertatu zenetik kirolari eta herrikide askoren mezuak jasotzen ari baitira. Aiurri astekariak hainbat lagun, ordezkari eta ezagunei animozko mezu bana igortzeko gonbitea luzatu die

## Erredakzioa URNIETA

Pertsona eta kirolari modura, Jokin Lizeaga miresgarria da pertsona askorentzat. Haietako batzuen animozko hitzak bildu ditu Aiurrik, lerrootan.

## Haritz Zubillaga, kirolaria (Urnieta):

"Koadrilakoak garen partetik, eta istripuaz geroztik zurekin aurrez aurre egoteko aukerarik izan ez dudanez, besarkada handi bat bidali nahi dizut *Juakin*. Eroriz ikasten omen da oinez, zuk aspaldi ikasi zenuen ordea altxatzen eta aurrera jarraitzen, oraingoan ere badakigu altxa eta aurrera jarraitzeko gai izango zarela... Ostegunetako Zaldundegiko afari horiez gozaten jarraituko dugu... Laister!"

## Izaro Elortza, familiako laguna (Urnieta):

"Emozioa mendian gora, eskuak zabalik edozertarako, irribartsu eta indartsu bizitzako korapiloak gaudituz, zoriontsu zu eta gu. Horrela nahi eta maite zaitugulako zu Jokin eta nola ez ondoan duzun izarra, Ainhoa, gaueko iluntasunean ere indarrez diratzen duzulako".

## Mikel Legarreta, mendi lasterkaria (Urnieta):

"Animo asko, eta besarkada handia! Gogorra haiz eta seguru honi ere buelta emango diokela. Asmatuko dek esperientzia txar horren alde positiboa bilatzen. Zegama-Aizkorren hire zati bat nirekin joango duk korrika! Hire abiaduran ez, ordea. Besarkada handia Ainhoa, Lide, Negu eta Intzari ere".

## Joxe Hortelano (Urnieta):

"Animo txapeldun. Hurrengoan suerte hobea izango duzu!"



Jokin Lizeaga, astearte goizean Urnieta anbulatorioan. ANDONI URBISTONDO



## Nola adierazi bizitako guztia

AINHOA JAUREGI LASTERKARIA, LIZEAGAREN BIKOTEA

Egoera tristeetan tristeena, eta bizitako momentuak tentsio handikoak izan ziren. Jokinek une zailak bizi izan zituen eta bera gehien maite dugunok okerrera entzun eta ikusteko beldurra izan genuen. Denontzat hiruzpalau ordu gogor izan ziren.

Behin momentu txarrenak pasata, eta Jokinekin elkartzeko aukera izan nuenean, sekulako lasaitasuna eta zoriontasuna sentitu nuen. Bizkarrezurra eta burua ondo, beso eta hanken mugikortasuna bazuela ikusita, eta hitz egiten zuela ikusita, beste fase batean sartu ginen. Orain elkarrekin egoteaz pozik gaude. Eta eskertuta. Inguruko aldetik animoz beteriko olatua jaso dugu. Ezin denei erantzun, den-denei eskerrik asko!

Ditugun benetako lagun eta familiak harro gaude. Maite zaituztegu esan nahi dizuegu, zuek ematen baitiozue zentzua gure bizitzari, bakoitzak bere neurrian.

Eskertza berezia mendian geratu eta Jokin zentzua galdu gabe eta animozko hitzak eskaintzen geratu ziren korrikalarietara. Baita David Moradiellosi ere, egoera zailan lasaitasuna erakutsi eta segurtasuna eman zenidalako. Eta bereziki egun zail hauetan patxada, pazientzia, eskuzabaltasuna eta izakera bikaina erakutsi didan Eneko Trintxeri. Tandem ona osatu genuen. Eta milesker aita, ama, Intza eta, noski, etxekoei.

## Mikel Pagola, Urnieta alkatea (EAJ-PNV):

"Animo Jokin eta animo familia osoari. Asteburuan gertatu zaizunaren ostean, lasaitasuna behar duzu eta inguruan maite zaituzten pertsonen laguntza, hasi duzun errehabilitazio fase honi ahalik eta ongien aurre egiteko. Aurretik ere izan dituzu erorketa larriak eta guztiei aurre egiteko gai izan zarenez, oraingo honetan ere ziur nago fisiko ki eta animikoki osatuko zarela Jokin. Denbora behar duzu. Denbora eta lasaitasuna eman behar dizugu, baina jakin gure babesa duzula".

## Mikel Izagirre EH Bilduko zinegotzia (Urnieta):

"Gizakiak orokorrean zulo asko topatzen ditu bizitzan osoan zehar. Baina aurrera egin behar, hik egin duaken bezalaxe!"

## Ivan Haro, lasterkaria eta PSE-EEko zinegotzia (Urnieta):

"Erori, jaiki eta segi aurrera. Jokin, Urnieta kirolari gutzientzat eredu ezinhobea zara. Ziur nago laster mendian elkar ikusiko dugula, gora eta behera. Eutsi goiari!"

## Juanjo Arregi, futbol entrenatzailea (Urnieta):

"Miresmena handituz doa. Egunerokoan pertsona honek erakusten digu arrakasta hitza

soilik lana hitzaren aurretik dagoela, bere hiztegiaren. Lepoan hartu eta segi aurrera!"

## Igor Amantegi, mendi lasterkaria (Urnieta):

"Hik bakarrik dakik denbora tarte horretan pasatako mixeria, Jokin! Hemendik aurrera errehabilitazio ona izan dezazula, laster dortsala jantzita ikusi nahi haugu! Besarkada handia, eta animo asko! Kapo!"

## Xuban Ezeiza, mendi lasterkaria (Urnieta):

"Gertakizunen indar eta argiz, erortzean berriro jaikiz, burruka honetan ere irauko dezulako... Animoak eta besarkada handi bat. Laister arte, Jokin".

## Jon Ugalde, lasterkaria (Andoain):

"Korrika erakusten duzun indarra beste behin ere agerian utzi duzu zure lasterketarik gogorrean. Animo eta gutziz osatu zaitez!"

## Mikel Astarloza, txirrindulari ohia:

"Asturiaseko zulo beltzetik irtetea izan da orain arte zure lorpenik handiena. Eta hori ere, zure garaipen guztiak bezalaxe, behar bezala ospatuko dugu. Zure lagun eta etxekoen babesa ez zaizu sekula faltako. Besarkada bat, eta laster arte".



# Mendi Film Festival Urnietan, ostiral honetan

**MENDIZALETASUNA** Iluntzeko 19:00an da hitzordua Saroben, eta sarrera doakoa izango da; eskalada, abentura, tradizioa eta beste dituzte hizpide nazioarteko lau pelikulek. Jaialdi ezaguneko filmak eskainiko dituzte Urnietan, bigarren urtez jarraian

**Erredakzioa** BURUNTZALDEA

MendiFilm Mendi pelikulen festibalak Urnietan egingen du geltokia bigarren urtez jarraian. Iaz udazkenean izan zen, baina aurten urte erdi lehenago iritsiko da herrira. Urnietako Udalak antolatzen du ekimena, eta bere nahia zen mendiko pelikula horiek ikusteko aukera hila-bete batzuk aurreratzea, udazkena iristerako Urnieta eta inguruko herrietako jende askok saritutako filmak ikusita dituelako, dagoeneko. Aitor Elduaie MFFestival-eko prentsa ardura-dunak gidatuko du ekitaldia.

**Lau film ikusgai**

Lau film ikusi ahal izango dira Saroben. 'Mama', epaimahaiaren saria jaso zuen filma. Eskalada egiten duen ama baten esperientzia du ardatz, Kinga Ociepkamakume poloniarrena, hain zuzen ere. Bi haur izan eta hezi ostean, eskaladatik urrunduta bi hamarkada eman ondoren, eskalataileak beste emakumearen batek inoiz igo gabeko bide bat gaingitzeko erronka zaila jartzen dio bere buruari.

'The Frozen Road' filmaren eragina ikaragarria izan da, han eta hemen. Bizikletan, eta negu batean Kanadako Artikoan zehar-katzen duen gizasemearen abentura kontatzen du Ben Page-ek, eta sarri, mutur-muturreko egoerak gizakiarengan zein arrasto uzten duen erakusten du gordin-gordin. Page-ek Jack London abenturazale ezagunaren leloa bere eginez ekin zion bidaiari: "gizona den gizon orok bidaiaria dezake bakarrik". Artikoan, baina, azkar jabetzen da esaten dena, eta egiten dena, ez direla gauza bera.

Brad Gobright da 'Safety Third' pelikulako protagonista, librean eskalatzeko munduko eskalataile onenetakoa. Inork ez du bere jarduna ezagutzen, ordea. Jendearentzat Brad janari az-




Pelikulen trailer-ak ikusgai daude [www.mendifilmfestival.com](http://www.mendifilmfestival.com) webgunean.

karreko jatorre batean lan egiten duen sukaldari laguntzaile soil da. Laugarren pelikula 'Song for the nomad' izango da, gutzietan laburrena (6 minutu), eta Kirgizistango Tienshan mendietako nomaden bizitza eta mendieskia uztartzen ditu. Sturgulewski estatubatuarrek ekoitzia.

**Film zerrenda**

- 'Mama' (Polonia, 44 min.), Wojtek Kozakiewicz.
- 'The frozen road' (ING, 24 min.), Ben Page.
- 'Safety third' (AEB, 28 min.), Cedar Wright-Taylor Keating.
- 'Song for the nomad' (6 min.), Ben Sturgulewski.



## Ibilaldi neurtua Andoain aldean

**MENDIZALETASUNA** Hiru ibilbide eskainiko dituzte aurtengo edizioan. Familiei begira, 10 kilometroko ibilbide laburra antolatu dute. Eta horiez gain,

ibilbide ertaina eta luzea. Zirkuিতua.com webgunean informazio osoa eskuragarri dago. Ondarreta ikastetxean ipini dute aurten, irteera eta helmuga.

## KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA	
PREFERENTE MAILA	
EMAITZAK	
Euskalduna-Allerru	1-0
Urnietan-Martutene	1-0
SAILKAPENA	
1 Deusto	56 puntu
2 Allerru	54 puntu
3 Euskalduna	51 puntu
4 EAS 08	47 puntu
9 Urnieta	29 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK	
17:30 Trintxerpe-Euskalduna / Lar, 14	
19:30 Mariño-Urnietan / Lar, 14	
ERREGIONAL MAILA, KOPA	
EMAITZA	
Asoleus-Euskalduna	1-2
SAILKAPENA	
1 Euskalduna	18 puntu
2 Mundarro	15 puntu
3 Sporting Herrera	15 puntu
6 Allerru	10 puntu
7 Asoleus	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:30 Euskalduna-Allerru / Lar, 14	
IGOERA FASEA, NESKAK	
EMAITZA	
Urnietan-Intxaurdi	2-5
SAILKAPENA	
1 Eibar	32 puntu
2 Anaitasuna	28 puntu
3 Lagun Onak	19 puntu
4 Urnieta	18 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
17:00 Eibar-Urnietan / Ig, 15	
KOPA, NESKAK	
EMAITZA	
Euskalduna-Allerru	1-2
SAILKAPENA	
1 Añorga	33 puntu
2 Goierri A	28 puntu
7 Euskalduna	10 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:40 Añorga-Euskalduna / Lar, 14	

JUBENIL MAILA, MUTILAK	
EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA	
Orioko-Urnietan A	2-2
Beasain-Euskalduna A	3-0
SAILKAPENA	
1 Beasain	28 puntu
2 Euskalduna A	26 puntu
3 Urnietan A	21 puntu
4 Allerru A	18 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Urnietan A-Beasain / Lar, 14	
17:30 Euskald. A-Beti Ona B / Lar, 14	
EMAITZAK, KOPA	
Euskalduna B-Idiazabal	1-0
Urnietan B	Atsedena
SAILKAPENA	
1 Billabona	27 puntu
2 Euskalduna B	19 puntu
3 Idiazabal	15 puntu
6 Urnietan B	6 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Urnietan B-Euskalduna B / Lar, 14	
KADETE MAILA, MUTILAK	
EMAITZA, OHOREZKO MAILA	
Sanse-Euskalduna	3-0
SAILKAPENA	
1 Antiguoko	65 puntu
2 Baskonia	61 puntu
3 Hernani	57 puntu
8 Euskalduna	37 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
12:30 Euskalduna-Ostadar / Ig, 15	
EMAITZAK, KOPA	
Urnietan-Martutene B (4.multzoa)	1-1
Goierri A-Euskalduna (7.multzoa)	2-2
ASTEBURUKO PARTIDAK	
11:00 Sanse A-Urnietan / Lar, 14	
15:30 Euskalduna-Ordizia / Lar, 14	
KADETE MAILA, NESKAK	
EMAITZA	
Urnietan	Atsedena
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Mutriku-Urnietan / Lar, 14	

## KARTELDEGIA: ARETO FUTBOLA

ARETO FUTBOLA	
SENIOR MAILA	
Euskalduna-Oiartzun	1-1
SAILKAPENA	
1 Hirukide	49 puntu
2 Tolargi	45 puntu
3 Oiartzun	39 puntu
4 Herrikide	37 puntu
5 Euskalduna	36 puntu
6 Idiazabal	35 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
17:30 Egarri-Euskalduna / Lar, 14	

ANDOAINGO TXAPELKETA	
ASTEBURUKO PARTIDAK	
A TALDEA, SAILKAPENA	
09:00 H. Extreme.-C. Extreme. / Ig, 15	
10:00 Akerbeltz-Txalaka / Ig, 15	
11:00 Lanbroa-Ekhia / Ig, 15	
12:00 Keler-Dad Kutxa / Ig, 15	
B TALDEA, SAILKAPENA	
13:30 Ekaitz-Pausoka / Lar, 14	
14:30 Powerade-A. London / Lar, 14	
19:00 Gorostidi-Olajauna / Lar, 14	
09:15 Academia GF-Irunberri / Ig, 15	



## KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

## ESKUBALOIA

## SENIOR MAILA, MUTILAK

## EMAITZAK

Leizaran-Ormaiztegi	27-30
Egia-Urnieta	27-26

## SAILKAPENA

1 Legazpi	33 puntu
5 Urnieta	26 puntu
11 Leizaran	6 puntu

## ASTEBURUKO PARTIDAK

17:00 Urnieta-Legazpi / Lar, 14
11:30 Aloña Mendi-Leizaran / Ig, 15

## SENIOR MAILA, NESKAK

## EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Ibaizabal-Urnieta (1. multzoa)	20-20
Leizaran-Zeppelin (2. multzoa)	-/-

## SAILKAPENA (1. MULTZOA)

1 Urdaibai	10 puntu
5 Egia Kopidin	3 puntu
6 Urnieta	3 puntu

## SAILKAPENA (2. MULTZOA)

1 Munttarpe	7 puntu
3 Leizaran	6 puntu

## ASTEBURUKO PARTIDAK

18:45 Urnieta-San Adrian / Lar, 14
17:30 Leizaran-BM Romo / Lar, 14

## JUBENIL MAILA, MUTILAK

## GIPUZKOAKO TROFEOA

## EMAITZAK

Urnieta	Atsedena
Ordizia-Leizaran	24-25

## SAILKAPENA

1 Bidasoa Irun	10 puntu
2 Urnieta	8 puntu
6 Leizaran	2 puntu

## ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Leizaran-Elgoibar / Lar, 14
11:30 Urnieta-Hettich / Ig, 15

## JUBENIL MAILA, NESKAK

## GIPUZKOAKO TROFEOA

## EMAITZA

Leizaran-Ereintza	20-26
-------------------	-------

## SAILKAPENA

1 Ereintza	11 puntu
2 Aiala	9 puntu
3 Leizaran	7 puntu

## ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Tolosa-Leizaran / Ig, 15
--------------------------------

## KADETE MAILA, MUTILAK

## FORU ALDUNDIKO TORNEOA

## EMAITZA

Leizaran Horia-Egia 3	19-22
-----------------------	-------

## ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Legasa-Leizaran Horia / Lar, 14
---------------------------------------

## KADETE MAILA, NESKAK

## GIPUZKOAKO KOPA (2. MULTZOA)

## ASTEBURUKO PARTIDAK

-:- Leizaran Urdina-Ereintza / Ig, 22
-:- Urnieta-Elgoibar / Ig, 22

## SASKIBALOIA

## SENIOR MAILA

## ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Goierri-Ganbara / Lar, 14
---------------------------------

## KADETE MAILA

## ASTEBURUKO PARTIDA

09:30 Ganbara-Aletico SN / Lar, 14
------------------------------------

# Iturria, udaberriko loraldiaren bila

**TXIRRINDULARITZA** Euskadi-Murias taldeko urnietarra Tour des Alps (Trentinoko Giroa) proban ariko da, astelehenean hasita. Astelehenean zortzi hilabete beteko dira Mikel Iturriak izterrezurra hautsi zuela, erorketa batean

## Erredakzioa URNIETA

Orduz geroztik jo eta su aritu da errehabilitazioan, gimnasioan eta bizikletan, lesioa ahalik eta ondoen osatu, eta berriro bizikleta gainean lehiakor izateko esperantzarekin. Egunak mantso pasa dira, eta errekupeazioa poliki, baina Iturriak indartsu ikusten du bere burua, eta hasi berri den udaberrian hainbat proba korrituko ditu, helburu xume baino garrantzitsuarekin: “berriro lehiakor izatea, txirrindulari sentitzea”.

17 egunetan lehiatu da, eta esan beharrik ere ez, nabaritu du erritmo falta. Euskal Herriko itzulia korritu zuen taldean lekua bazeukan, sasoi puntu onean egon izan balitz, baina nahiago izan zuen Frantzia aldean proba batzuk korritu, eta sasoi findu, apirila, maiatza eta ekaineko lasterketei prestatuago ekiteko. Astelehenean hasiko du bi hilabete luzeko txangoa Europan barrena, eta nola, gainera. Italia eta Austrian da lehen hitzordua, Trentinoko Giroa zena (egun Tour des Alps da, ofizialki). Giroan aurrean ibili nahi duten txirrindularien gustuko itzulia da Trentino, World Tour-eko hainbat talde indartsu erakartzen dituen. Besteak beste, Froome eta Pinotekin batera lehiatuko da Dolomitako malkar tenteetan.

Apirilaren 22an Giro dell'Apennino korrituko du Euskadi-Murias taldeak, egun batez. Maiatzaren 4tik 6ra Madrilgo Itzulia, 8tik 13ra Dunkerqueko lau egunak, 16tik 20ra Norvegiako Itzulia, Luxenburgokoa ondoren, eta zikloa bukatzeko, Iturriak ondo ezagutzen duen proba: Route du Sud edo Hegoaldeko Itzulia (ekainak 14-17), eta Espainiako Txapelketa. Ez dio helmuga jakinik jarri nahi bere buruari: “Tropelean egon eta lehiatzeko gai naizela ikusita konforme nintzateke”.



Udaberria lasterketaz beterikoa izango du Iturria urnietarrak.

Udaberria bukatzerako hankak erabat zुकututa izango ditu Iturriak, baina denboraldia ez da orduan bukatuko. Asteartean baieztatu zen Euskadi-Murias taldeak Espainiako Vuelta korritzeko gonbidapena jasoko duela, ofizialki, eta hori, noski, berri bikaina da. Iturriak denboraldiko azken itzuli handia korrituko duen zortzikoan egon nahi luke, eta uda horretara bideratuko du, Donostiako Klasikoa eta Burgosko Itzulia korrituta. Taldeak ere badaki urteko lasterketa garrantzitsuen dela.

**Alonso, iparraldeko klasikatan** Mikel Alonso Espainiako 23 urtez azpiko selekzioarekin lehiatzen aritu da Munduko Kopako bi probatan: Gante-Wevelgem eta Flandesko Tourra. Lehen proba bukatzea lortu zuen, ez bigarrena, Oude Kwaremont horman zulatu eta atzean geratu baitzen. Esperientzi ona izan dela dio Alonsok, “oso proba politak baitira”. Hurrengo asteetako plangintza ere bete-betea dauka: ZLM Tour selekzioarekin, eta Fundazioarekin Asturias eta Aragoiko Itzulia, Espainiako Txapelketa eta Ronde d'Issard.



Munduko Kopako bi probatan parte hartu du Mikel Alonso urnietarrak. RFEC



UKE

## Gaztetxoaren Europa League

**FUTBOLA** Martxoaren 31tik apirilaren 2ra bitarte, Les Eglantins txapelketa jokatu da Hendaian. Infantil txiki eta azken urteko alebinez osaturiko urnietar taldea garaile izan zen. Finalean Arlac taldea 1-0 garaitu zuten. Guztira, Gironde, Deux-Sèvres, Dordogne, Iparralde eta Hegoaldeko 66 futbol taldek hartu zuten parte. Zer esanik ez, urnietarrak pozarren itzuli ziren etxera.



# 'Txarangatzen' ekimena, Andoaingo kaleetan

Gipuzkoako zazpi txaranga Andoaingo auzo eta kaleak animatzen arituko dira apirilaren 21ean, larunbatarekin. Txarangatzen ekimena izango da, ezohiko musikarien topaketa, Gora Kaletxiki txarangak antolatuta



Lasarte-Oriako Gautxori txaranga Andoainera datorrenetako bat izango da. TXINTXARRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Gora Kaletxiki txarangak modurik alaienean, kaletarrenen eta zaratsuenen ospatu nahi du bere sorreraren hamabosgarren urteurrena. Egun horretan sei txaranga ibiliko dira kalean gora eta kalean behera, Andoain barrena. Gora Kaletxikirekin batera, Deiar (Errenteria), Gautxori (Lasarte-Oria), Oria (Tolosa), Urumea (Hernani), Talai Mendi (Orio) eta Tximeletak (Donostia).

## Eguerdian hasita, ospakizuna

Eguerdiko 12:00etan, Basteron harrera egingo zaie txaranga guztiei. Bertan, denek ere Joxe Mari Oiarzabalek Txarangatzen topaketari begira espreski sortu duen abestia interpretatuko dute. Ondoren, nor bere bidea hartuko du. Punta batetik bestera, Bazkardo eta Kaletxikitik Kariika bitarte, normalki musika iristen ez den auzo eta kaleetara iritsiko da musikaren soinua. 14:00etan Leizaran jatetxean bilduko dira; bertan Delfina Diez sukaldariak prestatutako bazkari goxoa edukiko dute zain. Txarangak kalean zehar dabilzala ere, hamaiketakoaz goza-

tzeko aukera edukiko dute. Andoaingo zenbait elkarte gastronomiko prestatu dira horretarako: Karrika, Triana, Kotoi, Santa Krutz, Andoaindara eta Hogar Extremeño. Bazkardoko auzo aldera musika jotzera doan txarangak, berriz, Irrintzi tabernan edukiko du zain hamaiketakoa.

## Ehundik gora musikari

Ehundik gora musikariren alardea izango da Txarangatzen ekimena. Gora Kaletxikiko ki-deek adierazi dutenez, ez daukate aditzerik inoiz hainbeste txaranga bildu denik ekitaldi berean: "Ekimena berria da txarangen unibertsoan, eta oso erakargarria egin zaie. Ideia azaldu eta etortzeko proposatu ahala, baiezkoa eman digute". Talde profesionalen gisa funtzionatzen dute Andoainera hurbilduko diren sei txarangek.

## EKITALDIA UDALAREN LAGUNTZAREKIN ETA MERKATARIEKIN ELKARLANEAN ANTOLATU DUTE

Baina, oraingoan, musutruk agertuko dira; Gora Kaletxikiren 15. urteurren berezia ospatzeko gogoak daukate. Elkarren ezagun eta adiskide dira guztiak ere, eta ez hori bakarrik: Andoainera larunbatean helduko diren musikariek Andoaingo txarangen aparteko filosofia estimatzen dute, herriko kultur giroan eragile bilakatzea eta musikan gazteei bultzada ematea, alegia.

## Kultur bizitzarekin eta merkataritzarekin bat eginez

Txarangatzen ekitaldia Andoaingo Udalaren laguntzarekin burutuko da. Ostalaritzari eta merkataritzari bultzada eman nahi diote antolatzaileek, eta horretarako Salkin elkartearekin elkarlanean jardungo dute. Tabernariak pintxo-pote berezia prestatuko dute. Ez hori bakarrik, astean zehar euren dendetako erakusleihoak txarangen ohi-koak diren elementu identifikagarriez (instrumentuak, jantziak...) apainduko dituzte, eta bertan erosketaren bat egiteagatik, erosleek txartelak eskuratu ahal izango dituzte, larunbateko pintxo-potean erabili ahal izateko.



Arizcuren, Torres urnietarra, Candial eta Palacio aktoreak igoko dira taula gainera.

## Eguneroko zailtasunei iskin egiteko antzezlanak Saroben

Cristina Torres urnietarraren sinadura eta zuzendaritza daraman 'La caja magica' antzezlanak igande honetan

### Erredakzioa URNIETA

"Les Figuretes" konpainia, ama-teurra izateko, urte gutxiko epealdian ibilbide oparoa osatzen ari da. Cristina Torres urnietarrak idatzi eta zuzentzen baititu antzezlanak: "Vota a Mariasun" komedia (2014), "La boda de Raquel" komedia (2015), "La caja mágica" tragikomedia (2016) eta "Gatas" drama (2018).

### Emakumeen eguneroko borroka

Zailtasunez beteriko egunerokotasuna aurki daiteke antzezlanetan. Hauxe da obraren deskribapena, konpainiaren ahotik: "Etxeko eta familiako betebeharrak aurrera atera behar dituzte, eta ez hori bakarrik: lan-erloko erantzukizunak ere bere gain hartu behar dituzte. Depresioek, estresak edo antsietateak eragina dute emakume horien gain".

## Igandean

### Eguna:

Apirilak 15, igandea.  
19:00.

### Lekua:

Sarobe.

### Zuzendaria:

Cristina Torres.

### Aktoreak:

Marta Candial, Juncal Arizcuren, Consoli Palacios, Cristina Torres.

### Argiztapena:

Amagoia Suárez.

### Produktore eragilea:

Anabasa Kultur Elkarte.

### Hizkuntza:

Gaztelania.

### Prezioa:

5 euro.

Salgai Saroben eta online (Urnieta.eus, Urnieta APP).



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 12

**URNIETA Ez ohiko plenoa**  
*Udaletxea, 19:00.*

## OSTIRALA 13

**URNIETA Tailerra**  
Webguneak sortzeko tailer praktikoa.  
Informazio gehiago, 7. orrialdean.  
**Gazte informazio puntua, 18:00.****URNIETA Ikus-entzunezkoak**  
Mendi film jaialdia. Filmen deskribapenak 11. orrialdean.  
**Sarobe, 19:00.**

## LARUNBATA 14

**ANDOAIN Ekitaldia**  
1936ko Gerran fusilatu zituztenak gogoan hartuko ditu 'Oroituz, Andoainen' herri ekimenak.  
**Alfaro parkea, 12:00.****ANDOAIN Erakusketa**  
"Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak" ikusteko azken eguna.  
**Bastero, erakusketa gela.****URNIETA Jardunaldia**  
Podcast jardunaldia.  
**Lekaio, egun osoan zehar.**

## IGANDEA 15

**ANDOAIN Mendi ibilaldia**  
Euskalduna mendigoizale elkartearen eskutik, hiru ibilbide aukeran.  
**Irteera, helmuga: Ondarreta.**

HIKA

**ANDOAIN Txarriboda ikuskizuna**Hika antzerki konpainiaren musikala, herriko hainbat talderen parte hartzearekin: Urki dantza taldea, Punttuka eta Katramila. Izenburuak iragartzen duenez, ezkontza da ikuskizunaren erdigunea.  
**Apirilak 13, ostirala. Bastero, 21:30. 12 euro.****ANDOAIN Flauta topaketa**Flauta ikasleen bilkura.  
**Bastero, 12:30. Doan.****URNIETA Antzerkia**"La caja mágica" antzezlan.  
**Sarobe, 19:00.**

## ASTEARTEA 17

**LEITZA Aurkezpena**  
Bazkunak Patziku Perurenaren "Leitzalarreko unaiak" saiakera liburua aurkeztuko du.  
**Batzar aretoa, 19:00.**


## OSTIRALA 20

**URNIETA Tailerra**  
Komikigintza tailer praktikoa, Judas Arrieta marrazkilari ezagunarekin.  
**Gazte informazio puntua, 18:00.**

## ASTEARTEA 24

**ANDOAIN Tailerra**  
Dantza tailerra, 5-8 urte bitarteko haurrentzat. Mintzalaguna egitasmoak antolatuta.  
**Arrate, 18:00.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Sin rodeos**  
Larunbata, 14:  
19:30; 22:00.  
Igandea, 15:  
19:30.  
Astelehena, 16:  
19:30; 22:00.**Hijo de Bigfoot**Haurrentzat.  
Larunbata, 14:  
17:00. Euskaraz.  
Igan., 15: 17:00.  
**Quando dejes de quererme**  
Larunbata, 21:  
19:30; 22:00.  
Igan., 22: 19:30.**URNIETA****SAROBE****Mendi Tour 2018**  
Ostirala, 13: 19:00.  
Mama (Polonia),  
The Frozen Road  
(ING), Safety Third  
(AEB), Song For  
The Nomad (AEB).

## SINOPSISIAK

**Sin rodeos****Zuz.:** Santiago Segura. **Herr.:** Espainia (2018). **Iraupena:** 87 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.**Besteetaz pentsatzen dena esatea**

Paz-en bizitza itxuraz ezin hobe da, baina ez da ausartzen bere sentimenduak

adieraztera. Terapia saioen ostean, pentsatzen duen guztia esango du, itzulingururik gabe.

**El hijo de Bigfoot****Zuz.:** Ben Stassen, Jérémie Degruson. **Herr.:** Belgika (2017). **Aktoreak:** Christopher L. Parson, Cal Bruncker... **Iraupena:** 92 min.**Esperimentu den aitaren bila**

Adam-ek 13 urte ditu. Arraro sentitzen hasten da ilea zein azkar hazten eta hankak handitzen ari zaizkiola ikusita. Bigfoot izaki legendarioaren semea dela jakingo du, zein

basoan bizi den familia babesteko eta zientzilarien esperimuntuetatik babesteko. Bere bila abiatuko da Adam, eta aitaren inguruan dauden misterioak ezagutuko ditu.





## ZORION AGURRAK



**URNIETA**  
**Iker Belaunzarán**  
**Urdangarin**  
 Zorionak Iker! Apirilaren 11n 5 urte. Segi jator-jator beti bezela. Muxu handi bat zure familiaren partetik, primeran ospatu du.



**ANDOAIN**  
**Jon eta Xuhar**  
 Apirilaren 14 eta 16an, Jon eta Xuhar Aranburuk seina urte beteko dituzte. Sei!! Bai azkar ari zaretela handitzen... Primeran pasa bikote!!



## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

**www.aiurri.eus**  
 Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

**diseinua@aiurri.eus**  
 Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

**Arantzibia 4-5, behea**  
 Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

**Whatsapp bidez:** 619 16 35 37

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ANDOAIN

**Larunbata 14 eta igandea 15**  
**PAJARES MERINO:** Zumea, 20.  
 943 592 629. Andoain.

## URNIETA

**Larunbata 14 eta igandea 15**  
**ETXEBESTE:** Elkano, 9.  
 943 552 087. Hernani.  
 Gauez, bi herrietan: Castilla.  
 943 552 941. Hernani.

## Elkartasun keinua

Urnietako Altradi konpainiak 500 euroko txekea eman berri dio Pausoka elkarteari, "Palet solidarioaren hilabetea" izeneko ekimenaren bitartez. Abenduan zehar garraiatutako palet bakoitzeko dirutxoia emateko konpromisoa hartu zuen enpresak. Eneko Martinez elkarteko lehendakari-ordeak jaso zuen txekea, Fermin Larrayozen eskutik.



ALTRADI

## OROIGARRIA



**José Luis**  
**Arias García**



Urnietarra apirilaren 6an zendu zen.

Rocio Arias Erroitz BMko lankidearen aita

"Saminean lagun"

**AIURRIKO LANTALDEA**  
 Andoain, 2018ko apirilak 10



## Bertsolaritza eta gaztetxeak

Alberto Irazu andoaindar kazetariak *Rocka puntua!!* liburuaren jendaurreko aurkezpena egingo du, eta segidan mahaingurua egingo dute bertsolarien, gaztetxe zaharreko kideen eta musikarien parte hartzearekin. Saioa borobiltzeko bertso saioa eta musika kontzertua iragarri dituzte. Andoaingo gaztetxean izango da hurrengo apirilaren 22an, igandearekin, 18:00tatik aurrera.



AIURRI

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
 edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

**Eskelak**  
**Aiurriin:**  
**90 euro**

## Formakuntza saioa gazteentzat

Andoaingo Txirrindulari Eskolak gazteen formakuntzan sakontzea helburu du, eta ostiral honetarako solasaldia antolatu du: "Tropel barruko egoera ezberdinak eta izan beharreko jokabideak jorratuko ditugu, bai lehiaketaren aldetik zein segurtasunaren aldetik ere. Horretarako Miguel Echezortu UCiko epailea, Mikel Iturria Euskadi Murias taldeko txirrindularia eta Felix Ugalde hautatzaile nazional ohia gonbidatu ditugu". Hitzaldia kadete mailako neska-mutil txirrindulari eta zuzendariarentzat bideratua dago nagusiki, beti jubenil mailako txirrindularientzat ere. Ekitaldia ostiral honetan izango da -Apirilak 13- arratsaldeko 19:00tan hasita Andoaingo Urigain Kultur Etxean. Hitzaldiaren iraupena ordu eta erdi ingurukoa izango da.

## TELEFONO ZENBAKIAK

## URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
 Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
 Ertzaintza: 943 538 840.  
 Osasun zentroa: 943 006 680.

## ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
 Udaltzaingoa: 943 300 819.  
 Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
 Osasun zentroa: 943 006 670.





## Sagarrak eta sagarrak

Urtarrila hastearekin batera ireki zituzten euren atea sagardotegiei. Garai hauetan, batez ere asteburuan, kupelak hustu eta tripa betetzeko asmotan milaka dira Euskal Herriko txoko guztietatik sagardoa eskaintzen duten herrietara datozen festazaleak. Jende askoren haserrea edota nazkarako kaleak txizaz zikintzen dituzte, urrin berezi-eta ez oso atsegina utziz.

Baina bada oraindik ere hori baino askoz nazkagarriagoa dena.

Antza, badirudi sagardoak gizon askok barruan duten neanderthal sen hori berpiztu egiten duela, eta horrek espresuki, kaleak txizaz zikindu baino, erasoz betetzen dituela. Batzuetan irrika bat sorrarazten zait, Edurnezurik sagar bat jan eta lo geratu zenean bezala, ea neanderthal baboso horiek ere hainbeste sagar gorputzean sartu ostean denboraldi oso luze batez lo geratzen diren.

Eskerrak badauden kaleak aldarri feministez betetzen dituztenak; sagardotegiak, tabernak, kaleak eta gaua emakumeonak\* ere badirela defendatzen dutenak, aldarri eta oihuekin beldurra bandoz aldaraziko dutenak, erasoei erantzuna ematen dietenak, sagarrari zuku morea ateratzen diotenak...

Gora sagar moreen iraultza!

## AZKENA



Uxue Alberdik 2017ko urrian aurkeztu zuen 'Jenisjoplin' eleberria. 111 AKADEMIA

# 111 Akademia saria Uxue Alberdientzat da

111 Akademiako kideek idazle elgoibartarraren 'Jenisjoplin' eleberria izendatu dute iazko obrarik gogokoena eta, beraz, 2017ko saria irabazi du. Sari-banaketa ekitaldia maiatzean izango da Basteron, Larramendi Bazkunak antolatuta

### Erredakzioa AIURRI

111 Akademiako akademiakideek hautatu eta izendatuta, Uxue Alberdik idatzi eta Susa argitaletxeak plazaratutako 'Jenisjoplin' eleberriak jasoko du 2017ko 111 Akademiaren Saria. Hiru bozketan txandetan garatu da aukeraketa prozesua, urtarrilean hasi eta apirilaren 8an amaitu dena. Lehenengo txandan, 2017an gogokoan izan zuten liburuen

alde bozkatzeko eskatu zitzaizkien 198 akademiakideei, eta lehen txanda hartan saridun izendatzeko behar zen botoen %30a lortu zuen obrarik egon ezenez, akademiak ohiko prozedura jarraitu eta beste bi bozketan txanda egin zituen. Alberdiren 'Jenisjoplin' eta Zubeldiaren 'Deserria' haurtzaro izan ziren bi finalistak, eta Alberdiren lana suertatu da garaile.



## Irakurleen iruzkinak eleberriari

2017ko urrian liburua aurkeztu zuenetik, hauexek akademiakide batzuren iruzkinak:

'Ederra da kontakizuna euskaraz irakurtzeko aukera izatea. Erakargarria eta erraza iruditu zait irakurketa. Irakurzaletasuna sustatzeko eleberri horietakoa dela esango nuke, aise ulertzen delako eta etenaldi asko dituelako irakurleari arnasa emanez'.

'Denetatik gertatu zait Uxue Alberdiren azken liburua irakurtzean: asko gozatu dut, izugarri aspertu naiz, gogotsu ekin diot irakurtzeari, nagikeriak jota alboratu dut liburua egun batzuetan, etab. Izan ere, protagonistaren bizitza hain korapilatsua da ezen normala baita gertatu zaidan guztia gertatzea. Orokorrean, merezi izan du'.

'Garapenean, protagonista itsutzen duten gaiak, gogoetak litezkeenak, elkarrizketa distiratsuekin ebatzi dira. Eta erreferente diren tokiek, beti legez, kontaktari gertaturiko usaina ematen diote... eta nork esango hala ez denik?'



**BERTSO GUTIZIAK**  
Laguntzailea: **INSALUS**  
Aprobazteko: **UKUMEAKO KRONIKA**  
ONDOREN GUTIZIA BEREZIK OSATUTAKO LUNTZ-AFARIA **ONGI ETORRI!**

23-38etan autobusa **BERNABIRA** bueltatzeko **ITENA EMAN!** (Ostera: KRONIKA) 943 33 08 99

**MAIALEN LUJANBIO**  
**AITOR SARRIEGI**  
SARRERAK SALGAI **22€**

**UNAI AGIRRE**  
**AITOR MENDILUZE**  
HERNANI KRONIKA, XIXKAL ARALAR GOZUETA AMAIA KAFETEGIA  
APIRILAK 20 19:00ETAN Basque Culinary Centeren

ERROJITU IRRINTZI IKATZA ASTIGARRAGA

Gai-jartzailea: **AMAIA AGIRRE**